

**1520/2022 EBAZPENA**, 2022ko abuztuaren 4koa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikerketako errektoreordeak emana. Haren bidez, ikertzaileen lan kontratazioa egiteko hautaketa-prozesurako deia egiten da jarduera zientifiko-teknikoen kontratu bidez honako ikerketa-proiektu hau garatzeko: “0011-3998-2021-000006 ERAMIN-ABTOMAT”.

2022ko abuztuaren 4an, Ikerketa Zerbitzuak hautaketa-prozesurako deia egiteko eskatu zuen, ikertzaileak kontratatzeko 1. motako proiektuko lankide doktore gisa “0011-3998-2021-000006 ERAMIN-ABTOMAT” ikerketa-proiektuarekin lotutako jarduera zientifiko-teknikoen kontratu bidez. Ikerketa-proiektuaren ikertzaile arduraduna Rafael Rodríguez Trías da, unibertsitateko katedraduna, Ingeniaritza Sailari atxikia.

Langileen Kudeaketako Ataleko buruaren txosten-proposamena aintzat harturik.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak errektoretza-taldearen egitura orokorra onetsi eta bere funtzioak zehazteko 2019ko uztailaren 3an eman zuen 1420/2019 Ebazpenaren bidez eskuordetu dizkidan eskumenak erabiliz,

#### **EBAZTEN DUT:**

Lehenbizikoa.- Hautaketa-prozesurako deialdia onestea, ikertzaileen lan kontratazioa egiteko “0011-3998-2021-000006 ERAMIN-ABTOMAT” ikerketa-proiektuarekin lotutako jarduera zientifiko-teknikoen kontratu bidez, baita deialdiaren oinarriak ere.

Bigarrena.- Ebazpen hau Hautapen Batzordeko kideei eta Ikerketa Zerbitzuari aditzera ematea.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Nafarroako Unibertsitate Publikoaren webgunean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 4an

Francisco J. Arregui San Martín  
Ikerketako errektoreordea

# IKERTZAILEEN LAN KONTRATAZIOA EGITEKO HAUTAKETA-PROZESURAKO DEIALDIA HONAKO IKERKETA-PROIEKTU HAU GARATZEKO: “0011-3998-2021-000006 ERAMIN-ABTOMAT”

Hauek dira deialdia arautuko duten

## OINARRIAK

### 1.- DATU OROKORRAK

**-Deialdiaren xedea:** deialdi honen xedea ikertzaileak hautatzea da, ondoren lan kontratazioa egiteko, jarduera zientifiko-teknikoen kontratu bidez, ikerketa-proiektu hau garatzeko: “0011-3998-2021-000006 ERAMIN-ABTOMAT”.

**-Maila profesionala:** 1. motako proiektuko lankide doktorea, batez ere ikerketa-lanetan aritzeko.

**-Eginkizunak:** NUPEk proiektuan esku dituen zeregin guztietan laguntzea, bereziki materialen karakterizazioaren garapen esperimentaletan, hondakinen bereizketan eta balorazioan eta ingurumenaren gaineko inpaktuaren ebaluazioan eta ekonomia zirkularrean.

**-Kontratu mota:** jarduera zientifiko-teknikoen kontratuaren modalitatearen bidez egingen da kontratazioa, Zientziari, Teknologiarari eta Berrikuntzari buruzko 2011ko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 23bis artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz (lege hori 2022ko apirilaren 5eko 8/2022 Errege Lege Dekretuak aldatu zuen).

**-Iraupena:** mugagabea, “0011-3998-2021-000006 ERAMIN-ABTOMAT” ikerketa-proiektuari lotua.

**-Lanaldi mota:** osoa.

**-Ordainsariak:** Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Ikertzaileak Kontratatze Arautegiak bere eranskinean ezarritakoak, 2022. urtera egokituak; arautegi hori 2017ko maiatzaren 3ko Gobernu Kontseiluaren erabaki baten bidez onetsi zen, eta 2022ko apirilaren 12ko Gobernu Kontseiluaren erabaki baten bidez aldatu.

Diru-gehigarriak ordaintzeko aukera egonen da, proiektuan ezarritako helburuak betez gero. Diru-gehigarri horiek ordaintzeko, proiektuaren arduradunak ordainketa justifikatzen duen azken txosten bat egin beharko du, eta aurrekontuan diru kopuru nahikoa izan beharko da.

**-Finantzaketa:** Nafarroako Gobernua.

**-Argitaratzeko tokiak:** Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeaz gainera, deialdiarekin lotutako egintza eta ebazpen guztiak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren webgunean argitaratuko dira.

### 2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

2.1.- Hautaketa-prozesuan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

2. orrialdea 8(e)tik

a) Espainiako herritarra izatea edo Europar Batasuneko estaturen batekoa izatea edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiar Estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzekoa zaion estaturen batekoa.

Halaber, Espainiako, Europar Batasuneko estatuetakoa eta aipatu nazioarteko itunak aplikatzen diren eremuko estatuetakoa herritartasuna dutenen ezkontideek parte hartzeko aukera dute, betiere zuzenbidearen arabera bananduak ez badaude; herritartasuna duenaren ondorengoek eta haren ezkontidearen ondorengoek ere parte hartzeko aukera dute, zuzenbidearen arabera bananduak ez badaude, baldin eta 21 urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.

Halaber, aurreko paragrafoetan sartuta ez dauden herrialdetakoak izan eta Espainian legezko bizilekua duten atzerritarrek administrazio publikoetako lan kontratupeko langile aritzeko aukera izanen dute. Espainian bizi ez diren atzerritarrek parte hartzeko aukera izanen dute, betiere parte hartzeko betekizunak betetzen badituzte. Kasu horretan, kontratazioa egin ahal izateko atzerritartasunari buruzko legeek eskatzen dituzten baimenak lortu beharko dituzte.

b) 18 urte baino gehiago izatea, eta erretiro adina betea ez izatea.

c) Materialen Ingeniaritzaren edo Ingeniaritza Kimikoaren esparruko doktorearen titulazio akademiko ofiziala izatea.

Atzerrian erdietsitako titulazioak badira, izangaiak eskuan izan beharko du homologazioaren egiaztageria, edo baliokidetzearena, hala badagokio. Betekizun hori ez zaie aplikatuko lanbide arautuen eremuan prestakuntza profesionalaren aitortpena Europako Erkidegoko Zuzenbidearen xedapenen babesean erdietsi duten izangaiei.

d) Deialdiko xede diren lanpostuak betetzea galarazten duen gaixotasunik edo muga fisikorik edo psikikorik ez edukitzea.

e) Diziplinako espediente baten ondorioz edozein administrazio publikotako zerbitzutik baztertua ez izatea, eta ez egotea epai irmo baten bidez ezgaitua eginkizun publikoak betetzeko.

2.2.- Aurreko arauetan ezarri diren baldintzak eskaerak aurkezteko epea bukatzen denean bete beharko dira, eta kontratazioa egin arte beteko dira.

### **3.- ESKAERAK**

Eskabideak aurkezteko epea 10 egun baliodun igaro ondoren bukatuko da, deialdi hau **Nafarroako Aldizkari Ofizialean** argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Hautaketa-prozesu honetarako **inskripzioa telematikoki** egin beharko da, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren goitza elektronikoaren bidez, helbide honetan:

<https://sedeelectronica.unavarra.es/sede/zerbitzu-katalogoa/guztiak/ikertzaileen-hautaprobak>

Lehenik, “**Hasi tramitea**” botoia sakatu behar da.

“**Erantsi fitxategiak**” eremuan, dokumentu hauek erantsi beharko dira lanpostu kategoria bakoitzerako:

- Parte hartzeko eskabidea.
- Nortasun Agiri Nazionalaren, AIZren edo pasaportearen fotokopia.
- Deialdian eskatzen den tituluaren fotokopia.
- Espediente akademikoaren fotokopia, batez besteko nota zehaztuta.
- Curriculum vitae, norberak egoki jotzen dituen merezimenduen egiaztagiriekin batera.

Parte hartzeko eskabide eredu esteka honetan dago:

<http://www2.unavarra.es/gesadj/registroGeneral/instancias/recursos-humanos/contratacion-personal-investigador.pdf>

#### **4.- IZANGAIEN ONARPENA**

4.1.- Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta gero, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da, baztertua izateko arrazoia esanez, baztertuen kasuan. Izangai bazterturik ez bada, zuzenean onetsiko da behin betiko zerrenda.

4.2.- Hirugarren oinarriak aipatzen dituen dokumentuak ez aurkezteagatik behin-behinean baztertzea galarazi gabe, eskaera epez kanpo aurkeztea edo lehiaketaren bidez lortu nahi den lanpostua betetzeko bete behar diren baldintzak ez betetzea baztertzeko arrazoiak izanen dira, eta, gainera, horiek ezin izanen dira zuzendu.

4.3.- Izangai baztertuek edo zerrendan azaldu ez direnek zilegi dute erreklamazioa egitea eta, akatsen bat badago, akatsak zuzentzea, behin-behineko zerrenda Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo 5 egun baliioduneko epean. Ezartzen den epean baztertuak izateko arrazoia konpontzen ez duten izangaiak behin betiko baztertuko dira, eta ez dute probarik eginen.

4.4.- Eskaerak aurkezteko eta akatsak zuzentzeko epea bukatu eta gero, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratuko da.

4.5.- Izangaiak hautaketa-prozesuan onartuen zerrendan egoteak edota 6.2 oinarriak aipatu hautaketa-prozesua gainditu dutenen zerrendan egoteak ez du ekarriko inoiz ere unibertsitateak aitortzea betetzen dituztela deialdiko oinarrietan eskatu diren baldintza orokorrak edo bereziak. Kontratatzeko deitzen dituzten izangaiek ziurtatu eta egiaztatu beharko dituzte horiek, jatorrizko dokumentazioa aurkeztu beharko baitute kontratua sinatzen dutenean.

4.6.- Parte hartzeko eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioarekin alderaturik jatorrizko dokumentazioa okerra edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, kontratua sinatzeko ezintasuna eta kontratazio zerrendatik baztertzea ekarriko du, interesdunak berak sinatuko duen erantzukizunpeko adierazpenarekin bat etorritik.

#### **5.- HAUTAKETA-PROZESUA**

Izangaien merezimenduak baloratuko dira, aurkeztutako dokumentazioarekin bat etorritik eta I. eranskinetako baremoaren arabera.

Izangaiek eskabideak aurkezteko epea bukatzean dituzten merezimenduak bakarrik baloratuko dira, eta gero lortutakoak ez dira kontuan hartuko. Hautapen Batzordeak inola ere ez du onartuko izangaiek alegatu ez duten edo agirien bidez frogatu ez duten merezimendurik, eta ezin izanen du apartatu bakoitzean adierazitako gehieneko puntuazioa baino handiagorik eman.

Adierazten diren merezimendu guztiak zuzenbidean baliozkoa den edozein baliabideren bidez frogatu behar dira.

Hautapen Batzordeko kide bakoitzak baloratuko ditu izangaien merezimenduak. Azken puntuazioa izangai bakoitzari emandako puntuazioen batezbestekoa izanen da.

### **6.- HAUTAKETA-PROZESUAREN EBAZPENA**

6.1.- Izangaiek aurkeztutako merezimenduen balorazioa amaitu eta gero, Hautapen Batzordeak Ikerketako errektoreordeari bidaliko dio hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda, lortutako puntuazioekin.

6.2.- Ikerketako errektoreordeak ebazpena emanen du hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda onesteko, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren webgunean argitaratuko da.

6.3.- Deialdi honetan sortzen den kontratazio zerrendak 3 urteko indarraldia edukiko du argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Indarrean dagoen bitartean, kategoria bera eta ia eginkizun berak dituzten langileak kontratatzeke premia sortzen denean ere erabiliko da kontratazio zerrenda hori, proiektu, kontratu, hitzarmen edo katedra baterako edo institutuko edo ikerketa-taldeko funtsetarako izan, betiere hurrenkera ordena errespetatuz.

6.4.- Deialdi honen ondoriozko kontratazio zerrendan egonik kontratu bat onartzen duten izangaiei ez zaie beste edozein lanpostutarako kontraturik eskainiko. Dena dela, eskainiko zaie baldin eta kontratua bukatzeko 15 egun edo gutxiago gelditzen badira.

### **7.- HAUTAPEN BATZORDEA**

Batzordeburua: José Antonio García Lorente doktorea, unibertsitateko katedraduna, Ingeniaritza Sailari atxikia, Ikerketako errektoreordeak delegatuta.  
Idazkaria: Rafael Rodríguez Trias doktorea, unibertsitateko katedraduna, Ingeniaritza Sailari atxikia.  
Batzordekidea: Carlos Berlanga Labari doktorea, unibertsitateko irakasle titularra, Ingeniaritza Sailari atxikia.

### **HAUTAPEN BATZORDE ORDEZKOA**

Batzordeburua: Iñaki Zalakain Iriazabal doktorea, kontratupeko irakasle doktorea, Ingeniaritza Sailari atxikia.  
Idazkaria: Gonzalo García Fuentes doktorea, irakasle elkartua, Ingeniaritza Sailari atxikia.  
Batzordekidea: Pedro Rivero Fuente doktorea, kontratupeko irakasle doktorea, Ingeniaritza Sailari atxikia.

Hautapen Batzordearen jarduerak, une oro, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezartzen dutenaren arabera gauzatuko dira. Jakinarazpenak egiteko eta bestelako gorabeheretarako, Hautapen Batzordearen egoitza Nafarroako Unibertsitate Publikoko Administrazioko eta Kudeaketako eraikina izanen da.

### **8.- DATU PERTSONALEN BABESA**

Nafarroako Unibertsitate Publikoak langileen kudeaketaren arloan antolatutako prozesuetan parte hartzeak interesdunen datuak tratatzea ekarriko du berekin. Datu horien tratamenduaren arduraduna Nafarroako Unibertsitate Publikoa da.

Datuen tratamendua aplikatzekoa zaion araudiari jarraikiz eginen da, hots, Datuak Babesteko 2016/679 EB Erregelamendu Orokorrari eta Datu Pertsonalak Babesteko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari jarraikiz. <http://www.unavarra.es> webgunean argitaratutako Tratamendu Jardueren Erregistroan kontsulta daiteke nola eginen den tratamendu hori, "GIZA BALIABIDEAK" atalean.

Tratatuko diren datuak batez ere hautaketa-prozesuetako izangaiak eta NUPeko langileenak izanen dira; hauek hain zuzen ere: izena, deiturak, NANa, datu akademikoak eta profesionalak eta, beharrezkoa denean, bankuko datuak eta Gizarte Segurantzakoak, edo ondoren deskribatzen den xedea betetzeko beharrezkoak direnak.

Datuen tratamendua justifikatzen duen xedea hau da: hautaketa-prozedurak, mugikortasunekoak, egoera administratiboak, ziurtagiriak, edo Giza Baliabideen arloan NUPen eskumenekoak diren beste batzuk tramitatzea.

Xede horrek interes publikoa edo botere publikoa legitimatzen du, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.e) artikulua ezartzen duen bezala. Hauek dira oinarri juridikoak, langileei buruzko beste arau batzuen artean: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onesten duen 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 2015eko urriaren 30ekoa, eta Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzura dauden Langileen Estatutuaren testuategina onesten duen 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, 1993ko abuztuaren 30ekoa.

Datuak tratatzeko jardueri dagokienez, interesdunek eskubidea dute datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, haiei kontra egiteko eta transferitzeko. Horretarako, mezu bat bidali behar dute [delegado.protecciondatos@unavarra.es](mailto:delegado.protecciondatos@unavarra.es) helbidera, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoaren 11. artikulutik 18. artikulura bitartekoei jarraikiz. Desadostasunen bat izanez gero, Datuak Babesteko Espainiar Agentziara jo dezakete, <https://www.aepd.es/> domeinuaren bidez.

## **9.- ERREKURTSOAK**

Hautapen Batzordeak erabakitzen dituen egintzen aurka, zilegi da gora jotzeko errekurtsua jartzea, errektoreari zuzendua, hilabeteko epean, aurkaratzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Deialdi honen aurka, haren oinarrien aurka eta beroriek aplikatzeko egintzen aurka, Hautapen Batzordeak egindakoak ez direnean, zilegi da ondoko errekurtsuotako bat jartzea, arau indardunekin bat etorriz:

a) Aukerako berraztertze-errekurtsua errektorearen aurrean, hilabeteko epean, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua Nafarroako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aurrera.

### **I. ERANSKINA**

#### **Ikertzaileak hautatzeko baremoa**

<b>ERABILIKO DEN BAREMOA ETA/EDO EGINEN DIREN PROBAK</b>		
<b>1. APARTATUA:</b> Espediente akademikoa eta graduondoko prestakuntza	<b>Puntuak</b>	<b>6</b>
- Graduako espedientea espedientearen batez besteko puntuazio normalizatuari dagokion proportzioan baloratuko da, gehienez ere 4 punturekin. - Unibertsitate masterreko espedientea espedientearen batez besteko puntuazio normalizatuari dagokion proportzioan baloratuko da, gehienez ere 2 punturekin. Doktoretzarako sarbidea eman duen titulazioa lizentziatura, ingeniari-tza edo 300 ECTS edo hortik gorako gradu bat bada, espedientearen batez besteko puntuazio normalizatuari dagokion proportzioan baloratuko da, gehienez ere 6 punturekin.		
<b>2. APARTATUA:</b> Esperientzia Materialen Zientzian	<b>Puntuak</b>	<b>8</b>
Materialen Zientziaren arloko ezagutza eta esperientzia 8 punturekin baloratuko da gehienez ere, kontuan hartuta graduako espezializazioa, GALa, unibertsitate masterraren orientazioa, MALa, doktoretza-tesia edo, halakorik egin izanez gero, lizentziaturak edo ingeniari-tzak eta horietako ikasketen amaierako lanak. Bestetik, aintzat hartuko dira ABTOMAT proiekturako interesgarriak diren teknika esperimentalak ezagutzea eta menderatzea, materialen arloko ikerketa-proiektuetan parte hartu izana, argitalpenak eta kongresu eta konferentzietako komunikazioak.		
<b>3. APARTATUA:</b> Esperientzia ingurumenaren jasangarritasunaren problematikan	<b>Puntuak</b>	<b>6</b>
Ingurumenaren jasangarritasunaren problematikaren arloko ezagutza eta esperientzia (energia aurrezteari eta kutsadura mugatzeari dagokienez) 8 punturekin baloratuko da gehienez ere, kontuan hartuta izangai bakoitzak nolako esperientzia duen meatzaritzako, metalurgiako edo industriako prozesuen jasangarritasuna lortzera bideratutako proiektuetan, oro har, eta haren inpaktuaren ebaluazioa eta ekonomia zirkularreko		

ikasketak.

**4. APARTATUA:** Elkarrizketa pertsonala

**Puntuak** 4

Aurreko apartatuen baturan puntuazio handiena lortu duten hiru izangaiei elkarrizketa egingen zaie. Elkarrizketa horretan, izangaiek proiektuko jardueretan aritzeko duten gaitasuna baloratuko da.

Hautaketa-prozesua gainditzeko eskatzen den gutxieneko puntuazioa 12 puntu da.

Hautaketa-prozesuaren azken emaitzan gerta daitezkeen berdinketak 2. APARTATUAN puntuazio handiena atera dutenen alde ebatziko dira. Berdinketa badago, 3. APARTATUAN puntuazio handiena lortzen dutenen alde. Berdinketak jarraitzen badu, zozketaz erabakiko da.